

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4480

*664/2022 EBAZPENA, uztailaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez Adelina Pérez Alonso andrea izendatzen den Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzako Ospitalizazioaren Alternatibak Zerbitzuko Unitate Korporatiboko buru, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan.*

Ikusita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzako Ospitalizazioaren Alternatibak Zerbitzuko Unitate Korporatiboko Burua lanpostua betetzeko deialdia, Giza Baliabideen Zuzendaritza honen martxoaren 31ko 357/2022 Ebazpenaren bidez egina eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 13ko 438/2022 Ebazpenaren bidez zuzendua.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko izangaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak aurkeztutako merezimenduen arabera baloratu ere. Hala, aurkeztutako dokumentazioa kontuan izanik, balorazio-batzordearen ustez, Adelina Pérez Alonso andrea aproposa da deialdiko lanposturako eta bertan jarduteko trebakuntza egokia du.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Adelina Pérez Alonso andrea izendatzea Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzako Ospitalizazioaren Alternatibak Zerbitzuko Unitate Korporatiboko buru, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2022ko abuztuaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 28a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,  
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.